

**Egilea:** Eider Calvo Quevedo

## **NORTZUK DIRA HISTORIAKO PROTAGONISTAK?**

Historian zehar jende asko egon da, baina nortzuk dira protagonistak? Testu honetan gai hauek eta gehiago landuko ditugu. Has gaitezen, bada, gaiak puntuz puntu lantzen.

Protagonista izatea historian hainbat modutan uler daiteke, baina, oro har, protagonista pertsonaia berezia edo historian arloren batean nabarmendu den pertsona da. Historian protagonista izan daiteke pertsona bat bere lorpen pertsonalengatik, adibidez, Einstein, zientziari egindako ekarpenengatik, edota talde bateko buru bihurtu delako edo dutelako. Esaterako, Kristobal Kolon Amerikara joan zenean, berekin batera beste 120 pertsona joan ziren, baina bera izan zen espedizioaren buru eta historian bera gelditu da Ameriketako aurkitzaile gisa. Pertsonaia bat lider izatera zer faktorek eraman duten ere hausnartzeko modukoa da, baina hori beste gai bat da.

Historian zehar nabarmendu diren pertsonaia ugari dago, esate baterako: Charles Darwin, Aristoteles, Albert Einstein, Isaac Newton, Kristobal Kolon, Galileo Galilei, Hitler, Franco... Batzuk ekarpen positiboa egin diote historiari eta beste batzuk eragindako minarengatik egin dira pertsonaia historiko. Hau da, ezin ditugu zaku berean sartu Newton eta Hitler.

Historia eta pertsonaiak aztertuta, bada gauza kurioso bat. Googlen "*personajes históricos relevantes*" jarrita azaltzen diren guztiak gizonak dira. Zergatik ote? Esango nuke urte askotan emakumea guztiz baztertuta bizi izan dela. Hau da, zientzian, politikan, literaturan, medikuntzan, astrologian beti egon dira askoz gizon gehiago emakumeak baino. Eta oraindik, tamalez, horrela da. Gizonek zuzendu dute mundua eta gizonek idatzi dute historia. Emakumeek askoz aukera gutxiago izan dute arloren batean gailentzeko, parte ere askoz gutxiago hartu dutelako. Jokatzeko aukerarik ere ez baduzu, nola irabazi partida?

Zorionez, oztopo ugari gaindituta, gutxi batzuek bai lortu zuten haien izena historian nabarmentzea. Horren erakusle ditugu Marie Curie, Frida Kalho edo Virginia Wolf. Garbi dago gizonek izan duten presentzia historian zehar ezin dela konparatu emakumeek izan duenarekin. Emakumeak itzalean egon dira beti, eta haien lorpenak ere ezkutuan geratu dira. Edo okerrago, isilarazi egin dira. Eta, aurreko gaian ikusi genuen bezala, kontatzen dena eta jasotzen dena bakarrik bihurtuko da historia.

